

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2332

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 12koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, energia-efizientzia, energia berriztagarriak, garraioa eta mugikortasun efizientea bultzatzeko inbertsioetarako laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen.

Energiaren Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jardunak, betiere EAE Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Horri dagokionez, 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian bildutako helburuak betetzera bideratutako hainbat ekintza garatzen ari da Energiaren Euskal Erakundea. Jarduketa horien artean aipatzekoak dira aurrezpena eta energia-efizientzia, eta instalazio eta eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzea helburu duten laguntza-programak, eta, horrekin batera, energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta garraioan eta pertsonen mugikortasunean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea helburu dutenak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Ildo beretik, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, 2030erako Euskadiko Energiaren Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Lege horren argitaratzearekin eta garapenarekin zehaztutako Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin bat etorritik, beharrezkoa den bultzada publikoarekin lagundu behar du energia-kontsumoaren efizientzia handitzeko eta baliabide berriztagarrien aprobetxamendua hobetzeko ahaleginean, baita energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzeko bidean ere, ingurumen-inpaktua murriztuz, eta kontsumorako energia-premien, eta, horren ondorioz, kanpo-baliabideen mendekotasuna, txikiagotuz.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean energia-efizientzia, energia berriztagarriak, garraioa eta mugikortasun efizientea bultzatzeko inbertsioak egin nahi dituzten ekintzak sustatzeko helburu nagusiarekin diseinatu da laguntza-programa hau.

Azaldutako guztia dela-eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarrenaz aldatzen duen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, energia-efizientzia, energia berriztagarriak, garraioa eta mugikortasun efizientea bultzatzeko inbertsioetarako laguntzen programari dagozkion oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, programaren edukia ebazpen honi l. eranskin gisa eranstean zaiolarik.

Bigarrena.— Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluari jarraikiz, energia-efizientzia, energia berriztagarriak, garraioa eta mugikortasun efizientea bultzatzeko inbertsioetarako laguntzen programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitaratzea.

Hirugarrena.— Ebazpen honek bide administratiboa agortzen du; hortaz, nahi izanez gero, berraz-tertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako auzitegietan, EHAAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Bilbao, 2022ko maiatzaren 12a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.



Energia-efizientzian, energia berriztagarrietan eta garraio eta mugikortasun efizientean inbertsioak egiteko laguntzen programa

Oinarriak



Energia-efizientzia, energia berriztagarrietan eta garraio eta mugikortasun efizientearen inbertsioak egiteko laguntzen programa

1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta laguntzaren izaera

1.1. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Eusko Jaurlaritzaren politika energetikoaren helburuekin bat etorritik, zeinak Euskadiko Energia Estrategia 2030 (3E2030) dokumentuan gauzaturik dauden, beharrezko bulkada publikoaren bidez energia-kontsumoan efizientzia areagotzen laguntzeko egitekoa dauka; horrela, energia-sistema lehiakorragoa, jasangarriagoa eta seguruagoa erdietsiko da, ingurumen-inpaktua murriztuko delako, kontsumorako edo ekoizpenerako energia gutxiago beharko delako eta kanpoko energia-baliabideekiko mendekotasuna txikituko delako.

1.2. Energiaren Euskal Erakundea (aurrerantzean, «EEE»), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa, EAEko sektore publikoak energiaren esparruan egiten dituen jarduerak eta jarduketak planifikatzeaz, koordinatzeaz eta kontrolatzeaz arduratzen da, Eusko Jaurlaritzak bere eskumenen eremuan emandako jarraibideekin bat etorritik.

1.3. Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean (aurrerantzean, «EAE») instalazioetan eta eraikinetan energia-aurrezkia, energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera areagotzea, energia-kontsumoa arrazionalizatzea eta pertsonen garraioan eta mugikortasunean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea xede duten ekintzak sustatzeko lehentasunezko helburuarekin, energia-efizientzia, energia berriztagarrietan eta garraio eta mugikortasun efizientearen inbertsioak egiteko laguntzen programa hau (aurrerantzean, «programa» o «laguntza-programa») argitaratzen da. Zehazki, sei laguntza-azpiprograma hauek osatzen dute:

- 1. laguntza-azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak.
- 2. laguntza-azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak.
- 3. laguntza-azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak.
- 4. laguntza-azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa.
- 5. laguntza-azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak.
- 6. laguntza-azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–.

1.4. Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak (aurrerantzean, «DLO») 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, EEEko Zuzendaritza Kontseiluak, 2022ko otsaileko 23an, EEEren 2022rako Dirulaguntza Plan Estrategikoa onetsi du.

EEEren 2022rako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/Corporativo/Portal-de-Transparencia/EVE.aspx>

Laguntzen onuradunentzat xedaturiko gehieneko zenbatekoa lau milioi (**4.000.000**) euro izango da, 3. oinarrian adierazitako xehakapenaren arabera.

Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

1.5. Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharretik.

a) 1., 2., 3., 4. eta 5. azpiprogrametarako, Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, «**651/2014 Erregelamendua**») ezarritako betekizunak eta mugak aplikatuko dira; erregelamendu horren bidez, tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin



bateragarritzat jotzen dira. Hain zuzen ere, ingurumena babesteko laguntzen kategoriagatiko salbuespena aplikatuko da (7. atala). Espezifikoki:

- 1. eta 5. azpiprogramak – 36. artikulua - Ingurumena babesteko laguntzak.
 - 2. eta 4. azpiprogramak – 38. artikulua - Energia-efizientziarako laguntzak.
 - 3. azpiprograma – 41. artikulua - Iturri berriztagarrietatik datorren energiarako laguntzak.
- b) 6. azpiprogramarako, Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamenduan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek *minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoan (aurrerantzean, «**1407/2013 Erregelamendua**»), ezarritako betekizunak eta mugak aplikatuko dira.

2. Onuradunak

- 2.1. Jarraian azpiprograma bakoitzerako xedatutakoarekin bat etorritik, honako hauek jaso ahalko dituzte deialdi honen xede diren dirulaguntzak, dokumentu honetan aipatutako baldintzak betetzen badituzte eta EAEko lurraldean energia-efizientzian, energia berriztagarrietan eta garraio eta mugikortasun efizientean eragina duten jarduketak subentzionagarriak egiten badituzte:

1. laguntza-azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak.

- Izaera pribatuko pertsona juridikoak.
- Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera.

Eta sozietatearen helburuak azpiprograma honetan xedatutako jarduketak egitea xedatzen badu: toki-erakunde horiekin lotutako edo haien menpeko erakunde publikoak, toki-erakundeek kapital sozialean duten zuzeneko zein zeharkako partaidetza % 50 baino gehiagokoa den udal-enpresa publikoak, fundazio-patronoa toki-erakunde bat den edo patronatua nagusiki toki-erakundeko eta partzuergoetako ordezkariak osatuta dagoen fundazioak eta nagusiki toki-kapital publikoko partaidetza duten edo toki-erakunde batek leku nagusi bat daukan beste edozein erakunde instrumental.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta bestelako entitate, erakunde publiko, fundazio eta sozietate guztiak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo foru-aldundiek % 50 baino gehiagoko zuzeneko zein zeharkako partaidetza badute haien kapital sozialean edo haietan leku gailen bat badaukate.

2. laguntza-azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak.

- Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetat jotzen diren enpresak, haien 2009ko Jardueren Sailkapen Nazionala (aurrerantzean, «**2009ko EJSN**») 07. eta 39. zenbakien artean badago, industria-sektorekoak izanez gero, edo 41. eta 99. zenbakien artean, hirugarren sektorekoak izanez gero (zenbakiok barne).
- Energia-zerbitzuen enpresa diharduen eta programa honen oinarrietan xedatutako jarduketak azpiprograma honetarako adierazitako onuradun potentzialen kontura egiten dituen pertsona juridiko oro.

Energia-zerbitzuen eskaintzan, dagozkion administrazio-agirietan eta EZEaren eta azken bezeroaren artean sinatutako kontratuan, nahitaez adierazi beharko da EZEari laguntza emanez gero osorik jasanarazi beharko zaiola kontratua sinatzen duen azken bezeroari, energia-zerbitzuaren prezioa murriztuz nahiz kontratuaren indarraldia aldatuz edo alde



aurretik adostutako beste formula batzuen bitartez. Edozein kasutan ere, alderdi hori egiaztatzea ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa aurkeztu beharko da.

3. laguntza-azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak.

- Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoak.
- Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak (autonomoak).
- Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako jabekideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen aurreikusitakoa bete beharko dutenak, eta nortasun juridikorik gabeko jabeen elkarteak. Jabekideen erkidegoek eta jabeen elkarteek, nortasun juridikorik ez duten baina azpiprograma honekin bat etorritik laguntza jaso dezaketen proiektuak egiteko moduan dauden entitateak direnez, bai DLOan (11.3 eta 13.2 artikuluetan) bai Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 44. Artikuluan (hemendik aurrera, «**EONAL**») ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.
- Izaera pribatuko pertsona juridikoak.
- Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen ezarritakoaren arabera.

Eta sozietatearen helburuak azpiprograma honetan xedatutako jarduketak egitea xedatzen badu: toki-erakunde horiekin lotutako edo haien menpeko erakunde publikoak, toki-erakundeek kapital sozialean duten zuzeneko zein zeharkako partaidetza % 50 baino gehiagokoa den udal-enpresa publikoak, fundazio-patronoa toki-erakunde bat den edo patronatua nagusiki toki-erakundeko eta partzuergoetako ordezkariak osatuta dagoen fundazioak eta nagusiki toki-kapital publikoko partaidetza duten edo toki-erakunde batek leku nagusi bat daukan beste edozein erakunde instrumental.

- Energia-zerbitzuen enpresa diharduen eta programa honen oinarrietan xedatutako jarduketak azpiprograma honetarako adierazitako onuradun potentzialen kontura egiten dituen pertsona juridiko oro.

Energia-zerbitzuen eskaintzan, dagozkion administrazio-agirietan eta EZEaren eta azken bezeroaren artean sinatutako kontratuan, nahitaez adierazi beharko da EZEari laguntza emanez gero osorik jasanarazi beharko diola kontratua sinatzen duen azken bezeroari, energia-zerbitzuaren prezioa murriztuz nahiz kontratuaren indarraldia aldatuz edo aldeztu aurretik adostutako beste formula batzuen bitartez.

4. laguntza-azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa.

- Pertsona juridiko pribatuak, haien 2009ko EJSNa 41. eta 99. zenbakien artean badago (zenbakiok barne).
- Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen ezarritakoaren arabera.

Eta sozietatearen helburuak azpiprograma honetan xedatutako jarduketak egitea xedatzen badu: toki-erakunde horiekin lotutako edo haien menpeko erakunde publikoak, toki-erakundeek kapital sozialean duten zuzeneko zein zeharkako partaidetza % 50 baino gehiagokoa den udal-enpresa publikoak, fundazio-patronoa toki-erakunde bat den edo patronatua nagusiki toki-erakundeko eta partzuergoetako ordezkariak osatuta dagoen fundazioak eta nagusiki toki-kapital publikoko partaidetza



duten edo toki-erakunde batek leku nagusi bat daukan beste edozein erakunde instrumental.

- Energia-zerbitzuen enpresa gisa diharduen eta programa honen oinarrietan xedatutako jarduketak azpiprograma honetarako adierazitako onuradun potentzialen kontura egiten dituen pertsona juridiko oro.

Energia-zerbitzuen eskaintzan, dagozkion administrazio-agirietan eta EZEaren eta azken bezeroaren artean sinatutako kontratuan, nahitaez adierazi beharko da EZEari laguntza emanez gero osorik jasanarazi beharko diola kontratua sinatzen den azken bezeroari, energia-zerbitzuaren prezioa murriztuz nahiz kontratuaren indarraldia aldatuz edo alde zuzenetik adostutako beste formula batzuen bitartez.

5. laguntza-azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak.

- Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoak (autonomoak), EAEn bizi badira edo egoitza sozial eta fiskala bertan badaukate.
- Izaera pribatuko pertsona juridikoak, EAEn bizi badira edo egoitza sozial eta fiskala bertan badaukate.
- Jabetza horizontalari buruko uztailaren 21eko 49/1960 Legearen arabera araututako jabekideen erkidegoak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen aurreikusitakoa bete beharko dutenak. Jabekideen erkidegoek, nortasun juridikorik ez duten baina azpiprograma honekin bat etorritik laguntza jaso dezaketen proiektuak egiteko moduan dauden entitateak direnez, bai DLOan (11.3 eta 13.2 artikuluetan) bai EOANALaren testu bateginaren 44. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.
- Egoitza sozial eta fiskala EAEn ez duten eta aurreko paragrafoan aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsona juridikoak, baldin eta **1. eranskineko** 2. ildoan adierazitakoaren arabera inbertsio subentzisionagarri bat egiten badute eta inbertsio horrek EAEko lurraldearen barruko energia-kontsumoari edo petrolioarekiko mendeotasunaren murrizketari eragiten badio.
- Kontzejuak, ermandadeak, administrazio-batzarrak eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuk, udalerriak, udalerrien mankomunitateak, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillak eta EAEko beste toki-erakunde batzuk, toki-araubideari buruzko oinarritzako legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen ezarritakoaren arabera.

Eta sozietatearen helburuak azpiprograma honetan xedatutako jarduketak egitea xedatzen badu: toki-erakunde horiekin lotutako edo haien menpeko erakunde publikoak, toki-erakundeek kapital sozialean duten zuzeneko zein zeharkako partaidetza % 50 baino gehiagokoa den udal-enpresa publikoak, fundazio-patronoa toki-erakunde bat den edo patronatua nagusiki toki-erakundeko eta partzuergoetako ordezkariak osatuta dagoen fundazioak eta nagusiki toki-kapital publikoko partaidetza duten edo toki-erakunde batek leku nagusi bat daukan beste edozein erakunde instrumental.

6. laguntza-azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–

- Izaera pribatuko pertsona juridikoak eta jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoak (autonomoak), 2009ko EJSNaren arabera ostalaritza-sektorekoak badira (55. eta 56. taldeak).

2.2. Honako hauek ezin izango dira laguntzen azken hartzaile izan:

- a) Dirulaguntzei buruzko Legearen 13.2 artikuluan eta EONALaren 50. artikuluan aurreikusitakoa betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, azken hartzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, kasuan-kasuan, betebeharrak horiek bete izana, egiaztatzen duena, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko



887/2006 Errege Dekretuko (hemendik aurrera, «DEO») 21. artikuluko horretan ezarritakoari jarraikiz betiere.

Gainera, azken hartzaileak DLOaren 13. artikuluan ezarritako gainerako betebeharrak beteta eduki behar ditu: besteak beste, egunean eduki behar ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Azken horri dagokionez, ondorioztatuko da azken hartzaileak laguntza-eskaera aurkeztuz baimena emango diola EEERi informazio hori dagokion zerga-administrazioarekin edo Gizarte Segurantzarekin zuzenean kontsultatzeko, prozedura izapidetzean beharrezkoa den uneetan.

- b) Krisi-egoeran dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduan eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Europar Batasuneko jarraibideetan xede horretarako egiten den definizioari jarraikiz (Batzordearen 2014/C 249/1 Komunikazioa, 2014ko uztailaren 31koa).
- c) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleitura dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- d) Emakumeen eta gizonen sexu- eta berdintasun-arrazoiengatik diskriminazioaren alorrean Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean dauden enpresak.
- e) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresek.

3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko epea

- 3.1. Programa honetarako xedatutako guztizko zuzkidura ekonomikoa lau milioi (4.000.000) euro da, EEERen aurrekontuetan horretarako ezarritako kredituarekin bat etorritik, eta honela zatituta dago azpiprograma bakoitzerako muntan arabera:

1. azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak	1.000.000 €
2. azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak	1.000.000 €
3. azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak	500.000 €
4. azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa	500.000 €
5. azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak	500.000 €
6. azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–	500.000 €

- 3.2. Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea **ekainaren 9an hasiko da, 08:00etan**, eta azpiprograma bakoitzean horretarako xedatutako aurrekontua agortzen den unean amaituko da.

Nolanahi ere, aipatutako aurrekontua agortu zein ez agortu, **2022ko urriaren 31** izango da azken eguna dirulaguntza-eskabideak aurkezteko.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko. Hala ere, azpiprograma bati esleitutako aurrekontua agortzen bada eta programaren indarraldia iraungi ez bada, eskaerak erregistratzen jarraitu ahalko da, behin-behineko erreserba-zerrendan. Sarrera-ordenari zorroztz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, eta horretarako ezinbestekoa izango da norbaitek aurretiazko laguntza-eskaeretan uko egitea edo eskaerok errebokatzea, aurrekontua askatu ahal izateko, edo deialdiari aurrekontu



gehigarria txertatzea. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte.

Horrez gain:

- a) Programaren aurrekontua handitu ahalko da, eskariaren eta proiektuen garapenaren arabera, eskaerak aurkezteko epea, 3.2 oinarri honetan ezarritakoa (2022ko urriaren 31), igaro ez bada.
- b) Deialdia itxi (2022ko urriaren 31) eta hurrengo hilabeteen, geratzen den funts-saldoa laguntza-azpiprogramen artean banatzea ahalbidetuko da, ahalik eta eskaera gehieni erantzuteko helburuarekin.

3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

4.1. Jarduketa subentzionagarriek, I. eranskinean ezarritako betekizunez gain, honako hauek bete beharko dituzte: eskatzaileek EAEko lurraldean eginak izatea, EAEko energia-efizientzia, energia berriztagarrietan eta garraio eta mugikortasun efizientean eragina edukitzea eta beranduenez **2022ko abenduaren 31n** egikarituta eta fakturatuta egotea. Zehatz-mehatz, programa hauei dagozkien:

- 1. azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak egitea, erregai fosilen kontsumoak ordezkatzeko.
- 2. azpiprograma – Industria-sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak, energia-kontsumoa murriztea dakartenak, egitea.
- 3. azpiprograma – Bero-ponpen bidezko aprobetxamendurako zundaketa bertikalak (zirkuitu itxia/irekia) egitea, bero-sareetan hargune eta truke-azpiestazio berriak egitea eta hondakin-beroaren aprobetxamendurako instalazio berriak sortzea.
- 4. azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralak ezartzeko inbertsioak egitea.
- 5. azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak egitea (mugikortasun bertikaleko energia-aurrezkia, gas naturalez hornitzeko instalazioak, bizikletaren sustapena).
- 6. azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–.

4.2. Oinarri hauetan berariaz xedatutakoez gain, batez ere 7. oinarrian aipatutako hautagarritasun-aldiari dagokionez, programa honetan ez dira jarduketa subentzionagarritzat joko honako hauek egiten dituztenak:

1., 2., 3., 4. eta 5. azpiprogramak (651/2014 Erregelamendua)

- 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluan 2. apartatutik 5. apartaturaino identifikatutako sektoreetako enpresak edo jarduerak.
- Batzordeak laguntza bat legez kontratatzat eta barne-merkatuarekin bateraezintzat jotzeko erabaki bat hartu ondoren berreskuratzeko agindu bat betetzeke duten enpresak.
- Krisian dauden enpresak, egoera horretan dauden enpresen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Batasuneko zuzentzauek ezarritakoaren arabera.

6. azpiprograma (1407/2013 Erregelamendua)

- 1407/2013 Erregelamenduaren 1.1 artikuluan identifikatutako sektoreetako enpresak edo jarduerak.
- Errepide bidezko salgaien garraioko eragiketak besteren kontura egiten dituzten enpresak, laguntza errepide bidezko salgaien garraiorako ibilgailuak eskuratzeko erabili nahi bada.



- Batzordeak laguntza bat legez kontraktatzat eta barne-merkatuarekin batera ezintzat jotzeko erabaki bat hartu ondoren berreskuratzeko agindu bat betetzeke duten enpresak.
- Krisian dauden enpresak, egoera horretan dauden enpresen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Batasuneko zuzentzaruek ezarritakoaren arabera.

4.3. Laguntzen munta oinarri hauen I. eranskinean jasotzen da, azpiprogramaren, jarduketa subentzionagarriaren tipologiaren eta laguntzaren azken hartzaile motaren arabera.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

5.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra onuraduneko

I. eranskinean adierazitakoari jarraikiz.

5.2. Europako araudi aplikagarria

1. Oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

5.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin

- Onuradunek 1. eta 5. azpiprogrametako jarduketetarako jasotzen dituzten laguntzak bateraezinak izango dira xede bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik etorri, nazionalak, Europar Batasunekoak nahiz nazioarteko erakundeetakoak izan.
- 651/2014 (EB) Erregelamenduan xedatutakoaren ondorioetarako enpresatzat jotzen diren onuradunek 2., 3. eta 4. azpiprogrametako jarduketetarako jasotzen dituzten laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, baldin eta osorik hartuta osatzen duten laguntza-ehunekoa 651/2014 (EB) Erregelamenduak ezarritako mugen berdina edo txikiagoa bada.
- Kontzejuek, ermandadeek, administrazio-batzarrek eta lurraldeko eremu txikiagoko beste toki-erakunde batzuek, udalerriek, udalerrien mankomunitateek, Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek eta EAEko beste toki-erakunde batzuek toki-araubideari buruzko oinarritzko legerian eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legean ezarritakoaren arabera 3. eta 4. azpiprogrametako jarduketetarako jasotzen dituzten laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, osorik hartuta osatzen duten laguntza-ehunekoa % 80 edo gutxiago bada.
- Onuradunek 6. azpiprogramako jarduketetarako jasotzen dituzten laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako eman daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, osorik hartuta osatzen duten laguntza-ehunekoa % 50 edo gutxiago bada.

5.4. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatea

a) DLOaren 29. artikuluan eta DEOaren 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik at geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, 29. eta 68. artikuluko horietan jasotako gainerako aurreikuspenak aplikatuko dira.

b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoek, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000



euro, BEZik gabe, obretarako), onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatzeke kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta Administrazio Elektronikaz diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean «21/2012 Dekretua»), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Eusko Jaurlaritzako Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>), eta Tramitagune Eusko Jaurlaritzako tramitazio elektronikoa aplikatuz, Euskadi.eus webgunean eta EEEn webgunean eskuragarri dagoena (www.eve.eus). Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkeztu bada, sinadura elektroniko aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikuluen arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoan aurkezteko. Ondorio guztietarako, zuzenketa ondo egin den data joko da aurkezpen-datatzat.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, **6. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, **3.2 oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Eskaeren onarpena hautatzeko aldiaren xedeetarako, eta **4.3 oinarrian** ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko:

- 651/2014 Erregelamendua aplikatzen zaien onuradunentzat, betearazpenerako irmoa den edozein konpromisoren, kontratuen, fakturen eta ordainagiriaren datek aurkeztu diren azpiprogramari dagokion deialdian eskaera erregistratzen den dataren ondorengoak izan beharko dute.
- Gainerako onuradunentzat, laguntzaren xede diren instalazioen egikaritzeari dagokion fakturen eta ordainagiriaren datak 2022ko urtarrilaren 1aren ondorengoak izatea eskatuko da.

Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez **8.1 oinarriaren** lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen bada eta azpiprogramen indarraldia edo programa osoa iraungi ez badira, eskaerak erregistratzen jarraitu ahalko da, behin-behineko erreserba-zerrendan, 3. oinarrian adierazitako moduan.



Laguntza-eskaerekin batera, oinarri hauen **II. eranskinean** aipatutako dokumentazio guztia aurkeztuko da, onuradun-motaren eta diruz lagundu nahi zaion jarduketa-motaren arabera.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeke beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

8.1. Laguntza-eskaeren ebazpenak ondoz ondoko lehiako prozedura baten bidez emango dira, egoera edo jarduketa subentzionagarria badela eta eskatutako beste betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Hala, eskaerak aurkezten diren ordena zorrotzaren arabera aztertu eta tramitatuko dira.

8.2. EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Ebazpenean honako hauek adieraziko dira: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren azken hartzailearen izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzita), (iii) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (iv), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze-errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**»).

8.3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

8.4. Azkenik, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorritik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») eta Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEk bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren dirulaguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

9.1. Laguntzaren azken onuradunek laguntzaren xede den jarduketa gauzatu, fakturatu eta ordaindu dela justifikatu beharko dute EEEEn, beranduenez 2023ko urtarrilaren 15ean, elektronikoki, **6. oinarrian** aipatutako aplikazio informatikoaren bitartez, 39/2015 Legearen 14.1 artikulua pertsona fisikoentzat xedatutako aukera baztertu gabe.

9.2. Laguntzen azken hartzaileak oinarri hauen **II. eranskinean** aipatzen diren eta aplikagarriak diren agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, eta, zehazki, onuradun-motaren eta egin den jarduketaren arabera adierazita daudenak.

9.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarentzako ordainketak egunean daudela dioten ziurtagiriak automatikoki eta ofizioz egiaztatuko ditu EEEk, Nafarroako Foru Ogasunari eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziari dagozkienak izan ezik, onuradunaren zerga-egoitza EAetik kanpo badago.



Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

- 9.4.** Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, justifikatzeko dokumentazioa osatugabe badago, akatsak baditu edo postaz nahiz aurrez aurre aurkeztu bada, laguntzaren azken hartzaileari, zuzenketa-eskaerako idazki egokiaren bidez, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta (39/2015 Legearen 68. artikulua).

- 9.5.** EEEk ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea, eta justifikazioa atal honetan ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzeko eta Dirulaguntzei buruzko Legearen ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

- 9.6.** Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioari balorazio positiboa ematen bazaio, EEEk laguntza ordainduko du.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aitzitik, onuradunak **9. oinarri honetan** xedatutako justifikazio-betebeharra, oinarriotan jasotako beste edozein baldintza edo dirulaguntzei buruzko araudia betetzen ez badu, EEEk laguntza guztiz errebokatzeko espediente bat hasiko du, 12. oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraituz eta proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorriz.

Laguntzaren bi errebokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

- 9.7.** Laguntzaren azken hartzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEk dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeak aukera emango duen dokumentazioa EEEri aurkeztu ondoren.

- 9.8.** Ezingo dute laguntzaren ordainketa jaso Administrazio orokorrak eta instituzionalak, haren erakunde autonomoek zein EEEk emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten onuradunek. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldia edo bide betearazlean.

Onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, haxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako Administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo onuradunei zein erakunde laguntzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldia zorrik ez izatea.

Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 21. artikulua).

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeak xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahal izango ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.



Beharrezkotzat jotzen bada dirulaguntzaren xede den jarduketa tokian bertan egiaztatzea, onuradunek EEEn aurretiazko komunikazioa jasoko dute eta egiaztatzeko bidea eman beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEn onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEn zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEn dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatze espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEn dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatze espedientea egingo du, eta, hala bada, gorkio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legeko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan parte hatzen duten onuradunek, nolana ere, betebeharrak bete beharko dituzte:

- a) Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretan, laguntzaren emakidaren jakinarazpena jaso eta hamabost (15) egun balioduneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egiten, onartu duela ondorioztatuko da, bai alderdi ekonomikoari bai ebazpenean jasotako gainerako baldintzei dagokienez, baita laguntza-deialdi honetan jasotakoei dagokienez ere.
- c) Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari eta EEEn ematea beren funtzioak gauzatzean laguntza-deialdi honen kontura jasotako laguntzei buruz eskatzen dioten informazio guztia.
- e) EEEn, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.
- f) Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, onuradunak onartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua guztiz bat datorrela indarreko araudi aplikagarriarekin, bai teknikoarekin, bai hirigintzakoarekin, bai beste edozeinekin.
- g) Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketan xede izan daitezkeela kontuan hartuta. Dokumentuen erabilgarritasuna, Europako funtsei aplikatzeko den araudian ezarritakoari lotuko zaio.
- h) Pertsona fisikoak ez diren onuradunek kontabilitate banandua edo bereizia eduki beharko dute laguntzaren xede den jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- i) Subentzionatutako ondasunaren titularra izan beharko du onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik.

Onuradunak laguntzaren xede den ondasuna besterentzen badu, lehenago adierazitako epea igarotakoan, honako hau egin beharko du:



- EEEren aurrean egiaztatzea, adieraztea eta akreditatzea, erosle berriak betetzen dituela laguntzaren azken hartzaile izateko Oinarri hauetan aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
 - Ondasun hori Programa honen laguntzaren xede izan dela.
 - Erosle berriak laguntzaren azken hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, laguntzaren azken hartzaile-kondiziotik eratorritako betebeharren indarraldia amaitu arte.
- EEEri egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabete epean formalizazioaz geroztik.

Onuradunak aipatutako besterentzeari datxezkion eskakizunak betetzen ez baditu, jasotako laguntza guztia edo zati bat itzuli beharko du, kasuaren arabera.

- Onuradunak konpromisoa hartzen du, EEEk eskatuta, erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko eta haiek hedatzea ahalbidetzeko, EEEk laguntza ordaindu eta hamar (10) urteko epean.
- Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEEri, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betetz eskatzen dion edozein informazioren berri ere.
- Informatzeko eta komunikatzeko egiten diren neurri eta ekintza guztietan, onuradunak Energiaren Euskal Erakundearen laguntzaren onuraduna dela aitortu behar du. Horretarako:
 - Paperean, webgune batean, app batean edo ikus-entzunezko euskarri batean egiten den ekintza orotan berriaz aipatuko da proiektuak dirulaguntza jaso duela EEEren laguntza-programaren barruan. Euskarriotan, EEEren logotipoa txertatuko da. EEEren logotipoa EEEren webgunean egongo da eskuragarri, formatu bektorialean eta azken bertsio eguneratuenean.
 - Gas naturalez hornitzeko azpiegituran, EEEk emandako kartel bereizgarri bat jarriko da, argi ikusteko moduan, dirulaguntza jasotzen duen instalazioko leku gailen batean.
 - Bizikletak mailegatzeko edo modu aseguruan aparkatzeko sistema publikoetan, EEEren logotipoa jarriko da, argi ikusteko moduan, dirulaguntza jasotzen duen instalazioko leku gailen batean, idazkun elebidun honekin batera: Laguntza programa / Programa de ayudas.
 - EEEren eskura jartzea diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa, haren emaitzak hedatzeko asmoz, elkarrekin adostu ondoren.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak

Onuradunak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketak bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio (diruaren legezko interesa, % 25 gehituta, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak bestelakorik ezarri ezean), oinarri hauetan eta DLOaren 37. artikuluan ezarritako kasuetan. Eta zati bat itzuli behar denean, Dirulaguntzei buruzko Lege horren 37.2 artikuluan adierazitako mailakatze-irizpideak hartu beharko dira kontuan, kasuan kasu honako hauei dagokien maila aintzat hartuz: (i) Programa honetan aurreikusitako xedea eta helburuak betetzea, (ii) subentzionatutako jardueren egikaritze materiala, (iii) subentzionatutako jardueren dagozkien zenbatekoak fakturatu eta ordaintzea.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **14. oinarrian** aurreikusitako gainerako arau aplikagarriak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko litzaioke EEEri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997



Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. titulua, EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, araubidea eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEEko zuzendari nagusiak du.

13. Informazio-klausula eskatzaileei

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea 36, 1. solairua, 48011, Bilbao (Bizkaia) telefonoa: 94 403 56 00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den erlazioaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahalko dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Emakiden hartzaileak	Kontrol-arloko eta alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatze, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEEri idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikari daitezkeen neurrian.
	Interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agentziaren aurrean erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus
Onuradun orok konpromisoa hartzen du, bere laguntza-eskaeran adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEEri eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridikoa, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEEri datu pertsonak behar bezala lagatzeko.	



14. Azken xedapenak

- 14.1.** EEEn erabakiak izaera administratiboa du eta EEEn kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
- 14.2.** Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEEn.
- 14.3.** Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken hartzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEn eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
- 14.4.** Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
 - Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.
 - Batzordearen 1407/2013 Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, minimis laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa.
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoi buruzkoa.



I. ERANSKINA

JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIAK, KOSTU HAUTAGARRIAK ETA LAGUNTZEN MUNTA

Jarduketa subentzionagarrien tipologiek bete behar dituzten betekizunak eranskin honetan zerrendatutakoak eta xedatutakoak dira. Gainera, gastu subentzionagarriak zein diren zehazteari dagokionez, eranskin honetan espresuki adierazitakoaz gainera, Dirulaguntzei buruzko Legearen 31. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

1. laguntza-azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak

Jarduketa subentzionagarriak:

Honako hauek hartuko dira subentzionagarritzat: hidrogenoa industria-sektorean erregai edo lehengai gisa erabiltzen hasteko, erabilera frogatzeko eta balidatzeko jarduketak; hidrogenoa eraikinetan eskari termiko edo elektrikoak asetzeko erregai gisa erabiltzeko proiektuak; eta, bi kasuetan, hidrogenoa egokitzearekin eta biltegitratzearekin zerikusia duten inbertsioak.

Gainera, hidrogeno berriztagarria edo deskarbonizatua ekoizteko instalazioak, gehienez 0,5 MW-ko elektrolisi-potentzia edo antzeko ekoizpen-gaitasuna dutenak, subentzionagarriak izango dira, aurreko paragrafoan deskribatutako proiektuekin lotuta daudenean. Sorkuntza elektriko berriztagarriko instalazioak ez dira subentzionagarriak izango.

Garraioaren eta mugikortasunaren sektorearekin lotutako aplikazioak azpiprograma honetatik kanpo geratzen dira berariaz.

Kostu subentzionagarriak:

Batasunaren arau aplikagarrietatik haraindi joateko edo Batasunaren araurik ezean ingurumen-babesa areagotzeko beharrezkoak diren inbertsio-kostu gehigarriak joko dira kostu subentzionagarritzat. Zehatz-mehatz, honela zehaztuko dira:

- o Ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, inbertsioaren guztizko kostuetan inbertsio bereizi gisa identifika daitezkeenean.
- o Beste kasu guztietan, ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, baina ingurumena hainbeste errespetatzen ez duen eta laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin zitekeen antzeko inbertsio baten arabera zehaztuta.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzearagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eman beharreko laguntzaren munta kostu subentzionagarrien portzentaje bat izango da. Hain zuzen ere, % 40 enpresa handientzat, % 50 enpresa ertainentzat eta % 60 enpresa txikientzat eta enpresatzat jotzen ez diren laguntzen onuradunentzat, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 36. artikulua (ingurumenaren babesa) ezarritakoaren arabera.

Beste muga batzuk:

Proiektu eta onuradun bakoitzeko, laguntzaren guztizko eta gehieneko munta hirurehun mila (300.000) euro izango dira.



2. laguntza-azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak

Jarduketa subentzisionagarriak:

- a) Prozesuak eta elementu lagungarriak berritzea eta hobetzea, energia-efizientzia altuko teknologiak erabiliz energia-kontsumoa nabarmen murriztu dela egiaztatzeko moduan. Jarduketa-mota honetan honako hauek barne hartzen dira: prozesuko galdarak, konpresoreak, erregailuak, fluidoak (beroa eta hotza) banatzeko sistemetako isolamenduak, aire-girotzea eta argiztapena ordeztzea edo hobetzea, maiztasun-erregulagailuak instalatzea, hondakin-beroak aprobeitzatzeko sistemak (bero-berreskuragailuak, aurreberogailuak...) instalatzea, etab.
- b) Dauden eraikinetan energia-instalazioak berritzea eta hobetzea energia-efizientzia altuko teknologiak, energia-kontsumoa nabarmen murriztu dela eta ondorioz ingurumena hobetu dela egiaztatzea lortzen dutenak, erabiltzen dituztenak baliatuz. Jarduketa-mota honetan honako hauek barne hartzen dira: fluido bero-eroaleak (beroa eta hotza) banatzeko sistemak, energia-aldagaiak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak eta argiztapena hobetzea, aireztapenean bero-berreskuragailuak instalatzea, etab.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko aire-girotzeko ekipamenduak (beroa edo hotza) eta EUBkoak berritzeko edo hobetzeko jarduketek.

Kostu subentzisionagarriak:

Energia-efizientzia handiagoa erdiesteko beharrezkoak diren inbertsio-kostu gehigarriak izango dira kostu subentzisionagarriak eta honela zehaztuko dira:

- Energia-efizientziako inbertsioaren kostuak inbertsioaren kostu totaletan aparteko inbertsio gisa identifika daitezkeenean, energia-efizientziarekin lotutako kostu horiek subentzisionagarriak izango dira.
- Beste kasu guztietan, energia-efizientzian egindako inbertsioaren kostuak zehazteko, energia-efizientzia txikiagoa dakarren eta laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin zitekeen antzeko inbertsio bat (aurrerantzean, «inbertsio arrunta») hartuko da oinarritzat. Bi inbertsioen kostuen arteko aldeak energia-efizientziarekin lotutako kostua baldintzatuko du eta kostu subentzisionagarria izango da.

Energia-efizientzian maila handiago bat lortzearekin zuzenean lotuta ez dauden kostuak ez dira subentzisionagarriak izango.

- **Gehieneko laguntza-muga** 80 €/MWh izango da (urteko azken energian aurreztutako megawatt-ordu bakoitzeko gehieneko laguntza-ratioa) prozesuak eta haien elementu lagungarriak berritzeko eta hobetzeko jarduketetarako eta 200 €/MWh (urteko azken energian aurreztutako megawatt-ordu bakoitzeko gehieneko laguntza-ratioa) dauden eraikinetan energia-instalazioak berritzeko eta hobetzeko jarduketetarako.

Energia-aurrezkiak kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko ekoizpen-gaitasunaren edo gaitasun ekonomikoaren gehikuntzaren ondorioz lortutako abantailak, halakorik izanez gero.

Ez dira kostu subentzisionagarriak izango:

- Eraikinen eta pabiloien inguratzailerik termikoko edozein elementutan egindako jarduketa oro.
- Fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzearagatik ordaindutako BEZa eta, oro har, edozein tributu.
- Inbertsioaren eta langile propioen ondorio diren finantza-gastuak, baita lurrak erostearen ondorio direnak ere.
- Erabilitako ekipamenduak erosteko inbertsioak.
- Makina autopropulsiatuetan, ibilgailuetan, bizikletetan eta oro har salgaietarako eta bidaiarientzako garraiobideetan egindako inbertsioak.



- Ekipamenduak eta instalazioak berritzea, erabileraren edo jardueraren aldaketa denean jarduketaren arrazoia.
- Ekipamenduak eta instalazioak berritzeko edo hobetzeko inbertsioak, enpresa kokalekuz aldatu denean.
- Ekipamendu eta instalazioak konpondu, egokitu eta mantentzeko inbertsioak.
- Kondentsadore-bateriak edo energia erreaktiboa konpentsatzeko elementuak.
- Goiburuko gailu edo sistema trinko «aurreztailea» instalazio elektrikoetan, ez badauka agente gaitu batek aurreikusitako aurrezki elektrikoak egiaztatzeko emandako ziurtagiririk.
- Zerbitzariak, inprimagailuak, eta oro har, mota guztietako ekipamendu ofimatikoak.
- Jarraipenari, aurrerapenari eta koordinazioari buruzko txostenak eta obra-bukaerako edo betearazpeneko ziurtagiria.
- Obra zibilean egindako gastutzat hartzen den ezein partida ekonomiko.
- Eta, oro har, argi eta garbi zehaztuta ez dauden eta laguntza-programa honen oinarrietan xedatutako jarduketetako inbertsioen ondorioz aurreikusitako energia-helburuak erdiesteko zuzenean identifikatu ezin diren kostu guztiak.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eman beharreko laguntzaren munta kostu subentzionagarrien portzentaje bat izango da. Hain zuzen ere, % 30 enpresa handientzat, % 40 enpresa ertainentzat eta % 50 enpresa txikientzat, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 38. artikulua (energia-efizientziarako laguntzak) ezarritakoaren arabera.

Beste muga batzuk:

Onuradun bakoitzeko, jarduketan laguntzaren guztizko eta gehieneko munta ehun mila (100.000) euro izango dira.

Ezingo dute laguntzarik jaso BEZik gabe berrogei mila (**40.000**) euro baino gehiagoko edo hiru mila (**3.000**) euro baino gutxiagoko inbertsio hautagarria (hau da, energia-aurrezkiarekin eta energia-efizientziarekin zuzenean lotutako inbertsioa) duten jarduketek.



3. laguntza-azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak

1 neurria. Bero-ponpen bidezko aprobetxamendurako **zundaketa bertikalak** (zirkuitu itxia/irekia) egitea

Jarduketa subentzionagarria:

Bero-ponpetan oinarritutako aplikazioetarako aprobetxamendu geotermiko bertikala eta hidrotermia xede dituzten zundaketek jasoko dute dirulaguntza. Ondorioz, ez dute dirulaguntzarik jasoko ez bero-ponpek ez zundaketekin lotutako gela teknikoek, orain zein etorkizunean existitu beharko baitute.

Kostu subentzionagarriak:

Hauek dira kostu hautagarriak, laguntzak xede duen jarduketarekin lotuta badaude:

- Zundaketak egiteko kostuak.
- Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta lagungarriak.
- Kudeaketarako, kontrol aktiborako eta monitorizaziorako sistemak, kudeaketa optimizatzen lagundu dezaten.
- Proiektua ondo egikaritzeko beharrezkoa den obra zibila.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzegatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntza kalkulatzeko, gehieneko erreferentzia-inbertsioa, laguntza-ehunekoa eta ezarritako mugak hartuko dira oinarri.

	Potentzia instalatuko gehieneko kostu hautagarria	Potentzia kalkulatzeko gehieneko mugak	Laguntza-ehunekoa
Zirkuitu bertikal itxia	1.200 €/kW	50 W/m lineal instalatuta	% 35
Zirkuitu bertikal irekia	800 €/kW	7 kW/m ³ /h-ko emaria aprobetxatuta	% 35
Zirkuitu hidrotermikoa	500 €/kW	5 kW/m ³ /h-ko emaria aprobetxatuta	% 35

2 neurria. Energia-iturri berriztagarrietan oinarritutako eta energia arruntez osatutako **bero-sareetan** erabiltzaile berriak sartzeko hargune eta truke-azpiestazio berriak

Jarduketa subentzionagarria:

Energia berriztagarrietan oinarritutako eta energia arruntez osatutako bero-sareetan erabiltzaileak sartzeko asmoz egindako hoditeria-sare eta azpiestazioetarako hargune berriek jasoko dute dirulaguntza. Energia berriztagarrien ekarpena, gutxienez, % 60 izango da eta sarearen kudeatzailearen adierazpen baten bidez justifikatuko da.

Kostu subentzionagarriak:

Hauek dira kostu hautagarriak, laguntzak xede duen jarduketarekin lotuta badaude:

- Obren edota instalazioen egikaritzapen-kostuak.
- Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta lagungarriak.
- Kudeaketarako, kontrol aktiborako eta monitorizaziorako sistemak, kudeaketa optimizatzen lagundu dezaten.
- Proiektua ondo egikaritzeko beharrezkoa den obra zibila.
- Dauden instalazioen eraispeneren kostua.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzegatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntza kalkulatzeko, gehieneko erreferentzia-inbertsioa, laguntza-ehunekoa eta ezarritako mugak hartuko dira oinarri.

Jarduketako gehieneko kostu hautagarria	Laguntza-ehunekoa	Bizitegi-eraikinetako jarduketetarako gehieneko laguntzaren muga
60.000 €	% 35	2.000 €/etxebizitza

3 neurria. Hondakin-beroak aprobetxatzeko instalazio berriakJarduketa subentzisionagarria:

Erabiltzaile berrientzat hondakin-beroa eta hondakin-hotza aprobetxatzen dituzten banaketa-hoditerien sareak eta truke-azpiestazioak egiteko emango da dirulaguntza.

Kostu subentzisionagarriak:

Hauek dira kostu hautagarriak, laguntzak xede duen jarduketarekin lotuta badaude:

- Obren edota instalazioen egikaritzapen-kostuak.
- Ekipamendu elektromekanikoak, hidraulikoak, kontrolekoak eta lagungarriak.
- Kudeaketarako, kontrol aktiborako eta monitorizaziorako sistemak, kudeaketa optimizatzen lagundu dezaten.
- Proiektua ondo egikaritzeko beharrezkoak diren obra zibilak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturaturako ondasun edo zerbitzuak eskuratzearagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntza kalkulatzeko, gehieneko erreferentzia-inbertsioa, laguntza-ehunekoa eta ezarritako mugak hartuko dira oinarri.

	Jarduketako gehieneko kostu hautagarria	Laguntza-ehunekoa
Harguneak eta truke-azpizentralak	60.000 €	% 35
Banaketa orokorra	450 €/m lineal	% 35

Beste muga batzuk:

Proiektu bakoitzeko, jarduketaren laguntzaren guztizko eta gehieneko munta ehun mila (100.000) euro izango dira, eta onuradun bakoitzeko, hirurehun mila (300.000) euro.



4. laguntza-azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa (EEKSIak)

Honako hauek jotzen dira energia-eskaria kudeatzeko sistema integraltzat (EEKSIatzat): energia-datuak monitorizatzeko eta kudeatzeko ekipamendua, energia kontsumitzen duten ekipamendu nagusiak erregulatu eta kontrolatzeko eta datu monitorizatuak kudeatzea eta energia-eskariaren kudeaketa optimizazio energetiko edo ekonomikoko irizpideekin hobetzeko neurriak modu automatizatuan hartzea ahalbidetzen duen softwarea.

Jarduketa subentzisionagarriak:

- **Neurketa-ekipamenduak**, energia kontsumitzen duten ekipamenduen kontsumoari buruzko datuak denbora errealean edo ia errealean lortzeko, sorkuntza berriztagarriak egonez gero horri buruzko datuak eskuratzeko eta energia-biltegitazterik egonez gero horri buruzko datuak eskuratzeko balio dutenak, baita energia-kontsumoarekin, sorkuntza berriztagarriarekin, energia-biltegitaztearekin eta dagokion gastu ekonomikoarekin lotutako beste aldagai interesgarriak (tenperaturak, baterien karga-maila, prezio-seinaleak edo jarduketa automatizatzeko beharrezkoa den beste edozein aldagai) eskuratzeko ere.
- **Energia kontsumitzen duten sistemak, sorkuntza berriztagarriak eta energia biltegitaztekoak erregulatzeko eta kontrolatzeko ekipamenduak**, energia-eskaria kudeatzeko eta malgutzeko neurriak ezartzea ahalbidetzeko balio dutenak. Sistema horiek, dagozkien algoritmoen bidez, gai izan beharko dute kontsumoak, sorkuntza berriztagarria (halakorik egonez gero) eta energia-biltegitaztea (halakorik egonez gero) une egokienetara aldatzeko, prezio-seinaleen, energia-eskariaren edo bestelakoen arabera. EEKSIa sistema adimendun batek, azaldutako elementu guztiei eragiteko gai denak, kontrolatu beharko du.
- **Biltegitazteko ekipamenduak**, alegia, biltegitazte arruntaren bidezkoak (litio ioizko bateriak), biltegitazte hidraulikoaren bidezkoak edo beste biltegitazte-sistema berritzaile batzuk. Hurrengo belaunaldiak bateriak eta ibilgailu-baterien aprobetxamendu berriak ere onartzen dira (baterien bigarren bizitza). Nolanahi ere, ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:
 1. Biltegitazteko sistemak ezin dira egon autokontsumo elektrikoko instalazio batekin lotuta.
 2. Biltegitazteko berun eta azidozko teknologiak ez du dirulaguntzarik jasoko.
 3. Biltegitazte-sistemak hautagarriak izateko, biltegitazteak ez du sarearekin zuzenean konektatuta egon behar; aitzitik, kontsumitzailearen barne-instalazioaren zati bat izango da.
- **Softwarea garatzea edo erostea** datuen bilketa, komunikazioa eta analisisia errazteko eta, horrela, proiektuan garatutako energia-kudeaketako jarduketak modu eraginkorrean ezartzea ahalbidetzeko. Softwareak, gutxienez, prestazio hauek eduki beharko ditu:
 - Ekipamenduen energia-kontsumoari, sorkuntza berriztagarriari, biltegitazteari eta identifikatutako aldagai nagusiei buruzko datuak eskuratzeko eta tratatzeko.
 - Ekipamendu kudeagarri guztiei eragitea, eskaria kudeatzeko ezarritako estrategien bidez.

Aipatutako zerrendatik, kontzeptu hautagarri guztiak edo batzuk eskatu ahalko dira, behin justifikatzen denean, deialdi honen xede diren jarduketek, gauzatu ondoren, EEKSI bat ezartzea ahalbidetzen dutela. Horretarako, nahikoa izango da memoria teknikoan esplizitatzea.

Kostu subentzisionagarriak:

Aipatutako jarduketa subentzisionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez dira kostu subentzisionagarritzat joko ez datuak biltegitazteko zerbitzariak ez ekipamendu ofimatikoak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eman beharreko laguntzaren munta kostu hautagarrien portzentaje bat izango da. Hain zuzen ere, % 30 enpresa handientzat, % 40 enpresa ertainentzat eta % 50 enpresa txikientzat eta



enpresatzat jotzen ez diren laguntzen onuradunentzat, 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 38. artikulua (ingurumena babesteko laguntzak) ezarritakoaren arabera.

Onuradunak jarduera ekonomikorik egiten ez duten erakunde publikoak badira, eman beharreko laguntzaren munta kostu hautagarrien % 80 izango da.

Beste muga batzuk:

Proiektu bakoitzeko, jarduketan laguntzaren guztizko eta gehieneko munta ehun mila (100.000) euro izango dira, eta onuradun bakoitzeko, hirurehun mila (300.000) euro.



5. laguntza-azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak

Azpiprograma honetan egindako jarduketa guztietarako, onuradun bakoitzeko, laguntzaren guztizko eta gehieneko muga berrehun mila (200.000) euro izango dira.

5.1 ildoak: Energia-aurrezkia mugikortasun bertikalean

Jarduketa subentzisionagarriak:

Mugikortasun bertikaleko instalazioak (igogailuak eta eskailera edo arrapala mekanikoak) modernizatzean energia aurrezteko sistemak ezartzea, bazeuden mugikortasun bertikaleko elementuetan energia aurrezteko badakarte.

Urtean gutxienez energia-kontsumo arrunta % 35 murriztea lortzen duten eta dokumentuen bidez justifikatuta dauden jarduketak izango dira hautagarriak.

Energia-jarduketek energia-efizientzia hobetzeko ekintzak barne hartuko dituzte, besteak beste, orientagarri gisa eta aukerak inola ere mugatu gabe, hauetako bat edo batzuk:

Igogailuak:

- Motorraren ordeztu Gearless erregulagailu-makina multzo bat jartzea.
- Igogailuko kabinako (edo mantentze-barrutiko) argiztapen-sistemaren ordeztu, beste LED mota bat jartzea, kabinako argia automatikoki itzaltzeko edo moteltzeko sistema bat ere barne hartzen duena.
- Frenatze birsortzaileko sistema bat instalatzea.
- Elementu elektrikoetako *standby* sistema.

Eskailera edo arrapala mekanikoak:

- *Start-stop* sistema instalatzea, presentzia detektagailuak, radarrak eta abar barne.
- Abiadura egokitzeko sistemak.

Kostu subentzisionagarria:

Aipatutako jarduketa subentzisionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Gehieneko laguntza-ehunekoa kostu hautagarriaren % 25 izango da, eta igogailu edo eskailera zein arrapala mekaniko bakoitzeko laguntzaren gehieneko munta, aldiz, 3.500 euro.

5.2 ildoak: Gas naturalez hornitzeko instalazioak

Jarduketa subentzisionagarriak:

Gas naturalez hornitzeko instalazio berriak.

Kostu subentzisionagarria:

Aipatutako jarduketa subentzisionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Ildo honetako jarduketetarako laguntzek ehuneko eta gehieneko muga hauek edukiko dituzte:

Hornitutako erregaia	Dirulaguntza			
	Sarbite pribatua		Sarbite publikoa	
	Laguntza-ehunekoa /kostu subentzionagarria (%)	Laguntzaren gehieneko munta (€)	Laguntza-ehunekoa /kostu subentzionagarria (%)	Laguntzaren gehieneko munta (€)
GNK	% 12,5	25.000 €	% 25	50.000 €
GNL	% 12,5	37.500 €	% 25	75.000 €
GNL + GNK	% 12,5	50.000 €	% 25	100.000 €

Udalenak, udalen mankomunitateenak, kuadrillenak, administrazio-batzarrenak, udal-sozietateenak, tokiko garapen-agentzienak edo antzeko erakunde publikoenak diren edo haiek kontratatzen dituzten **zerbitzu-flotak** (hala nola garraio publikoa eta hiri-hondakin solidoen bilketa) gas naturalez hornitzeko instalazioetarako laguntzek ehuneko eta gehieneko muga hauek edukiko dituzte:

Hornitutako erregaia	Gehieneko laguntza ekonomikoa			
	Hornidura publikorik gabe		Hornidura publikoarekin	
	Laguntza-ehunekoa /kostu subentzionagarria (%)	Laguntzaren gehieneko munta (€)	Laguntza-ehunekoa /kostu subentzionagarria (%)	Laguntzaren gehieneko munta (€)
Gas naturala	% 12,5	50.000 €	% 25	100.000 €

5.3.1 ildoak: Lan-eremuan bizikletaren erabilera sustatzeaJarduketa subentzionagarriak:

Lan-eremuan garraibide gisa bizikletaren erabilera sustatzea, laneko joan-etorrietarako, *in itinere* bidaietarako edo bietarako.

Bizikletak elektrikoak nahiz ez-elektrikoak izan ahalko dira eta Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrean (22. artikuluan) eskatutako elementuez hornituta egon beharko dute jatorritik: txirrina, aurreko eta atzeko posizio-argiak eta atzeko katadioptrikoa.

Bizikletek pedalei eragiteko laguntza badaukate (hots, elektrikoak badira), osagai eta baldintza hauek bete behar dira:

- Gehienez ere 250 W-ko potentziako motor elektrikoa eduki behar dute muskulu-esfortzuari laguntzeko. Laguntza eten beharko da pedalei eragiteari uzten zaionean edo abiadurak 25 km/h gainditzen ditenean.
- Bateriaren energia-dentsitatea, gutxienez, 100 Wh/kg izango da. Energia-dentsitatea kalkulatzeko, fabrikatzaileak ziurtatutako kapazitatea (Ah), tentsioa (V) eta bateriaren pisua (kg) erabiliko dira. Bateriaren pisuak gorputz osoa barne hartzen du, bizikletatik ateratzen den bezalaxe. Ildo horretan, argi dago litiozko (Li) ioi-bateriek baldintza hori betetzen dutela, berezkoak dituzten ezaugarriak direla-eta.

Enpresek justifikatu beharko dute bizikletak garraibide gisa erabiltzen direla eta urtean zenbat energia aurrezteko espero duten ibilgailu motordun pribatuen erabilera saihesteagatik



(ordezteagatik). Horretarako, txosten bat aurkeztuko da, gutxienez honako hau jasotzen duena:

- Ibilgailuen erabilera ordezteko eta bizikleten alde egiteko planaren deskribapena. Bertan, joan-etorri mota, langile baimenduak eta ordezteko kilometroen kopuruaren eta ondoriozko energia-aurrezkiaren kuantifikazio zenbatetsia adierazi beharko dira.
- Ordezpen-planeari sartutako bizikleten zerrenda, marka, modeloa eta mota (arrunta edo elektrikoa) zehaztuz.
- Ordezpen-planeari sartutako gainerako osagaien zerrenda.
- Ordezpen-planaren arabera erabiltzea saihestuko den ibilgailu motordun motak.

Batez beste, bizikleta bakoitzak, gutxienez, ibilgailu motordun pribatuz egindako 400 km ordeztu beharko ditu urtean.

Laguntza-ildo honetatik kanpo geratzen dira pedalei eragiteko laguntza duten bizikleten (bizikleta elektrikoen) antzeko ezaugarriak dituzten eta pedalei eragin gabe (azelerazio-bideren bat edo eragiteko beste moduren bat daukatelako) funtziona dezaketen ibilgailuak.

Enpresek ez ezik autonomoek ere eskuratu ahalko dute laguntza-ildo hau.

Kirolerako erabiltzeko diseinatutako errepideko edo mendiko bizikletek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

Inbertsio subentzionagarriak aipatutako 22. artikularekin bat etorritik egokitutako bizikleta barne hartuko du, baita erabilera egokirako beharrezkoak diren osagaiak ere, hala nola kaskoa, giltzarrapoa, zira eta ainguraketa-gailua.

Kostu subentzionagarriak:

Aipatutako jarduketa subentzionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzegatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa adierazpen honen emaitza izango da:

$$\text{Laguntzaren munta} = (100 \cdot B + 350 \cdot BE + 100 \cdot A) \text{ €}$$

Non:

B: bizikleta arrunten kopurua

BE: bizikleta elektrikoen kopurua (pedalei eragiteko laguntza dutenak)

A: ainguraketa-kopurua

Ildo honetako jarduketek kostu subentzionagarriaren % 25eko laguntza jasoko dute, eta laguntzaren gehieneko munta 10.000 euro izango dira (BEZik gabe).

5.3.2 ildoak: Kargako trizikloak, pedalei eragiteko laguntza dutenak eta halakorik ez dutenak (hots, elektrikoak zein ez-elektrikoak).

Jarduketa subentzionagarriak:

Trizikloek pedalei eragiteko laguntza badute (hots, elektrikoak badira), UNE-EN 15194:2009 arauaren betekizunekin bat etorri beharko dute eta osagai eta baldintza hauek bete beharko dira:

- Gehienez ere 250 W-ko potentziako motor elektrikoa eduki behar dute muskulu-esfortzuari laguntzeko. Laguntza eten beharko da pedalei eragiteari uzten zaionean edo abiadurak 25 km/h gainditzen ditenean.
- Bateriaren energia-dentsitatea, gutxienez, 100 Wh/kg izango da. Energia-dentsitatea kalkulatzeko, fabrikatzaileak ziurtatutako kapazitatea (Ah), tentsioa (V) eta bateriaren pisua (kg) erabiliko dira. Bateriaren pisuak gorputz osoa barne hartzen du, bizikletatik ateratzen den bezalaxe. Ildo horretan, argi dago litiozko (Li) ioi-bateriek baldintza hori betetzen dutela, berezkoak dituzten ezaugarriak direla-eta.
- Gutxienez, 50 kg salgai garraiatzeko gai izan beharko dute.



Laguntza-ildo honetatik kanpo geratzen dira triziklo elektrikoen (pedalei eragiteko laguntza dutenen) antzeko ezaugarriak dituzten eta pedalei eragin gabe (azelerazio-bideren bat edo eragiteko beste moduren bat daukatelako) funtziona dezaketen ibilgailuak.

Kostu subentzisionagarriak:

Aipatutako jarduketa subentzisionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzearagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Ildo honetako jarduketek kostu subentzisionagarriaren % 25eko laguntza jasoko dute, eta laguntzaren gehieneko munta 1.500 euro izango dira (BEZik gabe).

5.3.3 ildo: Bizikleta-maileguko sistema publikoak (udal bicisharing).

Jarduketa subentzisionagarriak:

Garraibide gisa bizikletaren erabilera sustatzea.

Laguntza-ildo hau udalentsat, udalen mankomunitateentsat, kuadrillentsat, administrazio-batzarrentzat, udal-sozietateentsat, tokiko garapen-agentzientzat eta antzeko erakunde publikoentzat bakarrik da, baita dagokien eremu geografikoan zerbitzu-mota hau emateko adjudikaziodun gertatu diren erakunde publiko eta pribatuentzat ere.

Bizikleta-maileguko sistema publiko berrietarako.

- Proiektu bakoitzeko, 50 bizikleta eta 75 ainguraketa egon beharko dute gutxienez. Badauden sistemak handitzeko proiektuetan, baldintza hau ez zaio handitzeari aplikatzen, sistema osoari baizik.
- Proiektuak zonako garraio-sareko tarifa-sisteman sartuta egon beharko du edo, bestela, geltokien kokapena ezaugarri hauek kontuan hartuta justifikatuko da:
 - ✓ Metro, tren, autobus edo tranbiaren geltokietatik hurbil egotea.
 - ✓ Jende asko igarotzen den zentroetatik hurbil egotea.
 - ✓ Auzoetako eta, oro har, biztanleria-dentsitate altuko zonetako garraio-sarearen konexioa hobetzea.
- Mailegu-sistema horretarako sortutako aplikazio informatiko baten bidez kudeatuko da. Horri esker, erabiltzaileak bizikleta automatikoki jaso eta eman ahalko du.

Kostu subentzisionagarriak:

Aipatutako jarduketa subentzisionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzisionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzearagatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Laguntzaren zenbatekoa adierazpen honen emaitza izango da:

$$\text{Laguntzaren munta} = F \cdot (20.000 + 75 \cdot B + 300 \cdot BE + 400 \cdot A) \text{ €}$$

Non:

B	Bizikleta ez-elektrikoak
BE	Pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak (elektrikoak)
A	Ainguraketak
F	Proiektu-motaren araberako faktorea

F faktorearen hasierako balioa 0,70 izango da eta 0,1 gehituko zaio baldintza hauetatik proiektuak betetzen duen bakoitzagatik (F-ren gehieneko balioa 1,0 izango da):

1. Irisgarritasun unibertsala. Erabiltzaileak aurretiazko kudeaketarik egin gabe eta zerbitzuan alta hartu gabe erabil ditzake sistemako bizikletak.
2. Sistema bateragarria. Sistema hurbileko udalerrietan badauden beste batzuekin bateragarria da; hau da, bizikletak trukagarriak dira eta erabiltzaileak, sistema batean



alta hartuz gero, gainerakoetako bizikletetarako sarbidea dauka. Baldintza hau orobat betetzat joko da gutxienez bi (2) udalerri aurkeztutako proiektuetan, badagoen hurbileko sistema batekin bateragarria ez bada ere.

3. Mugikortasun-plana duen eremu geografikoa. Proiektua hiri-mugikortasun jasangarriko aurretiazko plan batean ezarritako helburuetan oinarritzen da. Laguntza-eskaeran behar bezala egiaztatu beharko da plana badagoela.
- Ildo honetako jarduketek kostu subentzionagarriaren % 50eko laguntza jasoko dute, eta laguntzaren gehieneko munta 50.000 euro izango dira (BEZik gabe).

Badagoen sistema bat handituz gero, laguntzaren zenbatekoa adierazpen honen emaitza izango da:

$$\text{Laguntzaren munta} = F \cdot (20.000 \cdot X + 75 \cdot B + 300 \cdot BE + 400 \cdot A) \text{ €}$$

Non:

- B Bizikleta ez-elektriko berriak
- BE Pedalei eragiteko laguntza duten bizikleta (elektriko) berriak
- A Ainguraketa berrien kopurua
- F Proiektu-motaren araberrako faktorea
- X Ainguraketa berrien eta guztizko ainguraketen arteko proportzioa:

$$X = \frac{\text{Ainguraketa berrien kopurua (A)}}{\text{Guztizko ainguraketen kopurua}}$$

F faktorearen hasierako balioa 0,70 izango da eta 0,1 gehituko zaio baldintza hauetatik proiektuak betetzen duen bakoitzagatik (F-ren gehieneko balioa 1,0 izango da):

1. Irigarritasun unibertsala. Erabiltzaileak aurretiazko kudeaketarik egin gabe eta zerbitzuari alta hartu gabe erabil ditzake sistemako bizikletak.
2. Sistema bateragarria. Sistema hurbileko udalerrietan badauden beste batzuekin bateragarria da; hau da, bizikletak trukagarriak dira eta erabiltzaileak, sistema batean alta hartuz gero, gainerakoetako bizikletetarako sarbidea dauka. Baldintza hau orobat betetzat joko da gutxienez bi (2) udalerri aurkeztutako proiektuetan, badagoen hurbileko sistema batekin bateragarria ez bada ere.
3. Mugikortasun-plana duen eremu geografikoa. Proiektua hiri-mugikortasun jasangarriko aurretiazko plan batean ezarritako helburuetan oinarritzen da. Laguntza-eskaeran behar bezala egiaztatu beharko da plana badagoela.

Ildo honetako jarduketek kostu subentzionagarriaren (badagoen eta funtzionatzen ari den sisteman zati berria sartzeko beharrezko inbertsioaren) % 50eko laguntza jasoko dute, eta laguntzaren gehieneko munta 50.000 euro izango dira (BEZik gabe).

5.3.4 ildo: Bizikleta-aparkaleku segurua

Jarduketa subentzionagarriak:

Bizikletak segurtasunez aparkatzeko sistemak, erabiltzaile partikularrek edo bizikletak maileguz uzteko sistema publiko baten zati gisa erabiltzekoak.

Sistema horiek bide publikoan edo ibilgailuak aparkatzeko gunetan kokatu beharko dira, eta kokapen espezifikoak bizikletaren erabilera errazteko dela justifikatu beharko da.

Kostu subentzionagarriak:

Aipatutako jarduketa subentzionagarriak egiteko beharrezkoak diren inbertsio-kostuak.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzegatik ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Ildo honetako jarduketek kostu subentzionagarriaren % 25eko laguntza jasoko dute (BEZik gabe), eta laguntzaren gehieneko munta 250 euro izango dira kutxa edo modulu indibidual bakoitzeko. Eskatzaileak hiri-mugikortasun jasangarriko plan bat edo manufaktura-jarduerako edo zerbitzu-jarduerako zentroetara garraiatzeko plan bat badauka, kostu subentzionagarriaren % 40ko laguntza jasoko du (BEZik gabe), eta laguntzaren gehieneko munta 400 euro izango dira kutxa edo modulu indibidual bakoitzeko.




6. laguntza-azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–

Jarduketa subentzionagarriak:

Produktuetarako hotz komertzialeko ekipamenduak (hozteko armairuak eta mahaiak, hotz-ganberak, beira-arasa kontserbatzaileak, erakusketarako beira-arasak, etab.) berritzeko dirulaguntzak emango dira, merkatuan eskuragarri dauden energia-efizientzia altuko teknologia onenak erabiliz energia-kontsumoa nabarmen murriztea erdiesteko, ekipamendu arruntarekin erkatuta.

Betekizun gisa, ekipamenduok honako hauek eduki behar dituzte:

- CE marka.
- Ekipamenduaren fitxa teknikoa.
- A, B edo C energia-klaseko etiketak.



The energy labels for a fridge without freezer

Izozkailurik gabeko hozkailu baterako energia-etiketaren adibidea.

Kostu subentzionagarriak:

Laguntzaren xede den ekipamenduarekin zuzenean lotutako kostuak. Hala ere, ez zaie dirulaguntzarik emango kostu gehigarriak, hala nola instalatzeko lanak, garraioak, etab.

Ez da kostu subentzionagarritzat joko fakturatutako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeko ordaindutako BEZa, ezta beste ezein tributu ere, oro har.

Laguntzaren zenbatekoa:

Eman beharreko laguntzaren munta kostu subentzionagarriaren % 30 izango da, eta ekipamendu bakoitzeko gehieneko laguntza, aldiz, 5.000 euro.

Beste muga batzuk:

Gutxieneko kostu subentzionagarria 1.000 euro izango dira.

Onuradun bakoitzeko, laguntzaren guztizko eta gehieneko munta berrogeita hamar mila (50.000) euro izango dira.



II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

Eranskin honetan zerrendatutako dokumentazioaren xedea da, laguntza-eskaeraren eraginpeko proiektuari dagokion laguntza-programan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Hala, eskatutako dokumentazioak ziurtatu beharko du programa bakoitzean proiektuei eskatutako baldintzak bete egiten direla, bai hautatutako programan sartzeko bai laguntza jasotzeko. Horrez gain, eskatutako dokumentazioak ahalbidetu beharko du, laguntzaren onuradunak laguntza-programa bakoitzean sartzeko behar diren betekizunak betetzen dituela egiaztatzea.

Halaber, egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioak ahalbidetu beharko du proiektuaren eta laguntzaren onuradunaren edo azken hartzailearen alderdi bat edo guztiak egiaztatzea.

Dokumentu guztiak PDF formatuan aurkeztuko dira, testua pantailan horizontalean bistaratuta eta ahal bada trinkotu gabe.

IIE.A Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa

IIE.A.1 Laguntza-programei aplikatzekoa den dokumentazio orokorra

- a) Eskatzailearen, eta, bidezko bada, eskatzailea legez ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren/AIZren kopia, eskaera pertsona fisiko edo erakunde juridiko bat ordezkatzeko edo talde, elkarte edo erkidego bat ordezkatzeko aurkeztu ote den adierazita. NANaren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta interesdunak EEEri espresuki baimena ematen badiu bere nortasun pertsonaleko datuak kontsulta ditzan.

Bestetik, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak administrazio publikoei eskumena ematen die bere esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.

- b) Eskaera lege-ordezkarari baten bidez aurkeztu bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du.
- c) Eskaera eskuorde baten bidez aurkeztu bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala eskuordetuta egon beharko du eta ordezkari emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitaio. Eskaeraren sinatzailearen NANaren kopia aurkeztu beharko da.
- d) Eskatzaileak edo haren ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, non zehatz-mehatz jasota geratuko d(ir)en jarduketaren eskatzailea(k) edo eskatzaileak(ek):
- Dirulaguntzei buruzko Legeko 13. artikuluan aurreikusitako egoeretako baten eraginpean ez dagoela. Aipamen espresua egingo da beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez dagoela edo haiek itzultzeko dituen betebeharrak zintzo betetzen direla adierazita, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduen 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.
 - Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta daudela, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 22. artikuluan ezartzen denez. Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez. Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan 1. atalean aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.
 - Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen



administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboen kopia aurkeztu beharko da.

- Onuraduna baldin bada merkatuan ondasunak eta/edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten duen pertsona fisiko bat (autonomoak), azken hiru urteetan minimis erregimenaren arabera eskatutako edo jasotako laguntzen zerrendari buruzko adierazpena ere aurkeztu beharko du. Minimis Erregelamenduan ezarritako eskakizun eta mugen mende egongo dira horrelako jarduketak.
- Azken hartzailea pertsona fisiko bat ez bada, azken erabiltzaile hori krisian ez dagoela dioen adierazpena, krisian dauden enpresak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko Europako Erkidegoko Jarraibideek ezarritakoaren arabera (Batzordearen komunikazioa, 2014/C 249/1, 2014ko uztailaren 31koa).

e) 6. azpiprogramarako eskaera aurkeztzen duten eta 1407/2013 Erregelamenduaren eta 360/2012 Erregelamenduaren arabera enpresatzat jotzen diren eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, erregelamendutan eskatutako moduan.

f) 1., 2., 3., 4. eta 5. programetarako eskaera aurkeztzen duten eta 651/2014 Erregelamenduaren arabera enpresatzat jotzen diren eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute eta, bertan, enpresa txikia, ertaina edo handia diren jaso beharko da, 651/2014 Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako definizioaren arabera, edo, hala badagokio, merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikorik gabeko erakundea den.

Horrez gain, enpresa txiki edo ertainak badira 651/2014 Erregelamenduko I. eranskineko 2. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz, hori hala dela egiaztatu beharko dute honako dokumentazio hau aurkeztuz:

- Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa biltzen duena.
- Negozioen urteko bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzeko agiria.

g) 2., 4. eta 6. laguntza-azpiprogrametara aurkeztzen diren eskatzaileek haien jarduera ekonomikoari dagokion EJSN kode eguneratua jasotzen duen dokumentu ofiziala aurkeztu beharko dute, hala nola onuradunaren zerga-identifikazioko txartela, zentsu-aitorpena, ekonomia-jardueren gaineko zerga, eratzeko eskritura, etab.

Energia-zerbitzuen enpresen edo programa bakoitzean bildutako sektoreetako establezimenduetan jarduten duten bestelako enpresen kasuan, betiere, jarduketaren eraginpeko bezeroari dagokion EJSN egiaztatu beharko da.

h) Eskatzailea titularra den konturen IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea onuradun bihurtutakoan.

i) Energia-zerbitzuen enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Laguntzaren eskatzaileak eta bezeroak energia-zerbitzuak emateko sinatutako kontratuaren kopia. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: egingo diren inbertsioak, inbertsioak bezeroari itzultzeko modua eta EEEK eskatzaileari emandako laguntza ekonomikoak bezeroarentzat izango duen eragina energia-zerbitzuen prezioei dagokienez. Aldi berean, EZEak bezeroarekiko hartutako betebeharren arabera egiten dituen inbertsioak eta EZEak borondatez erabakita gauzatzen dituenak bereizi beharko dira.
- Aurreko paragrafoan aipatutako kontratuan ez bada berariaz jaso EZEak EEEtik jasotzen duen laguntza ekonomikoak bezeroarentzat zerbitzuaren prezioen murrizketari dagokionez izango duen eragina, horri buruzko adierazpen bat (kontratuari erantsita) aurkeztu beharko da, bi alderdiek (EZEak eta bezeroak) sinatuta, eta bertan jaso beharko da emandako laguntza ekonomikoaren zenbatekoa kendu zaiola gutxienez energia-zerbitzuaren kostuari.
- EZEko langileen eskulana, dirulaguntzaren xede den jarduketari edo jarduketaren multzoari zuzenean egotz dakiokiena, EZEak egindako ziurtagiriaren bidez bermatu



beharko da. Bertan, parte-hartzaile bakoitzaren kategoria, arduraldi-orduak eta orduko kostua zehaztu beharko dira.

- j) Jarduketak egikarrituko dituen enpresaren edo enpresen aurrekontua. Behar bezala xehakaturik egon beharko du, jarduketa subentzionagarriaren partida ekonomiko esanguratsuak bereiztea ahalbidetzeko. Datak 4.3 oinarrian aipatutakoaren ondorengoa izan beharko du.

Kontratazio publikoko araudiaren eraginpeko azken hartzaileen kasuan, dagozkion lizitazio-agirien zirriborroak ordeztu ahalko du adierazitako dokumentazio hori.

All.A.2 Laguntza-azpiprograma bakoitzerako dokumentazio gehigarria

1. laguntza-azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak

- Egin beharreko jarduketa, hidrogeno-sistema osatzen duten elementuen deskribapena eta ezaugarri teknikoak eta, hala badagokio, erregai fosiletatik datorren energia-kantitate ordeztuaren zenbatespena zehazten dituen deskripzio-memoria.
- Batasunaren arau aplikagarrietatik haraindi joateko edo Batasunaren araurik ezean ingurumen-babesa areagotzeko beharrezkoak diren inbertsio-kostu gehigarriak. Zehatz-mehatz, honela zehaztuko dira:
 - a) Ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, inbertsioaren guztizko kostuetan inbertsio bereizi gisa identifika daitezkeenean.
 - b) Beste kasu guztietan, ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, baina ingurumena hainbeste errespetatzen ez duen eta laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin zitekeen antzeko inbertsio baten arabera zehaztuta.

2. laguntza-azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak

- Egin beharreko jarduketa, energia-aurrezkiak dakarten elementuen deskribapena eta ezaugarri teknikoak eta oraingo eta etorkizuneko egoerako energia-emaitzen eta ekonomia-emaitzen justifikazioa zehazten dituen deskripzio-memoria. Bertan, bai energia-aurrezkiak eta ekonomia-aurrezkiak bai energia-jarduketa egiteko aurkezturiko eskaintza ekonomikoaren inbertsioaren itzulera-aldia esplizitatu beharko dira.
- Inbertsio «arrunt» edo «estandarren» kostua, 651/2014 Erregelamenduan xedaturikoa betez («energia-efizientzia altukotzat» jotzen den energia-sistematik barne hartzen ez duen oinarritzko inbertsio baten eskaintza aipatzen du dokumentu horrek).

3. laguntza-azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak

- Instalazio berriaren proiektua edo deskripzio-memoria teknikoak. Bertan, proiektua hasteko eta amaitzeko datak adierazi beharko dira. Era berean, instalazioaren kokapena UTM koordinatuaren sistemaz (X, Y) zehaztu beharko da.

Ezinbestekoa da memorian dirulaguntzaren xede den instalazioak beteko duen energia-eskaria jasotzea. Kasu hauetarako, honako hauek zehaztuko dira:

- Aprobetxamendu geotermiko bertikal eta hidrotermikorako zundaketak:
 - Zirkuitu bertikal itxia: zundaketa-kopurua (zk.), sakontasuna (m), zundaketen potentzia (kW) eta lotutako bero-ponparen potentzia (kW).
 - Zirkuitu bertikal irekia: zirkuituaren potentzia eta lotutako bero-ponparen potentzia (kW) eta aprobetxatutako emaria (m³/h).
 - Zirkuitu hidrotermikoa: zirkuituaren potentzia eta lotutako bero-ponparen potentzia (kW) eta aprobetxatutako emaria (m³/h).



- Bero-sareetan erabiltzaile berriak sartzeko hargune eta truke-azpiestazio berriak
 - Sarearen kudeatzaileak bero-sarearen energia berriztagarriko ekarpenari buruz egindako adierazpena. Neurriak laguntza jasotzeko, ekarpen berriztagarriak gutxienez % 60 izan beharko du.
 - Bizitegi-eraikinetan egindako proiektuetarako, etxebizitza-kopurua adieraziko da.
 - Azpiestazio bakoitzaren truke-potentzia (kW).
- Hondakin-beroak aprobetxatzeko instalazio berriak:
 - Banaketa nagusiaren garapena, banaketaren luzera lineala (m) adierazten duten planoen bidez.
 - Azpiestazio bakoitzaren truke-potentzia (kW).

4. laguntza-azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa

- Eskatutako ekipamenduak zehatz-mehatz deskribatzen dituen memoria:
 - Energia kontsumitzen duten sistemak, sorkuntza berriztagarrikoak (halakorik egonez gero) eta energia biltegitratzekoak (halakorik egonez gero) neurtzeko, erregulatze eta kontrolatzeko ekipamenduak, alde batetik kontsumoari buruzko datuak denbora errealean edo ia errealean lortzeko eta bestetik energia-eskaria kudeatzeko eta malgutzeko neurriak ezartzea ahalbidetzeko.
 - Biltegitratzeko ekipamenduak, alegia, biltegitratze arruntaren bidezkoak (litio ioizko bateriak), biltegitratze hidraulikoaren bidezkoak edo beste biltegitratze-sistema berritzaile batzuk. Hurrengo belaunaldiko bateriak eta ibilgailu-baterien aprobetxamendu berriak ere onartzen dira (baterien bigarren bizitza).
 - Datuen bilketa, komunikazioa eta analisia errazteko eta, horrela, proiektuan garatutako jarduketak modu eraginkorrean ezartzea ahalbidetzeko garatutako edo erositako softwarearen deskribapen zehatza.
- Aurreikusitako energia-aurrezkiaren eta ekonomia-aurrezkiaren justifikazio-memoria. Dokumentu hau laguntza-programa honen bidez dirulaguntza jasoko duen jarduketaren ondoriozko datu tekniko eta ekonomikoen laburpena izango da. Zehazki, oraingo eta etorkizuneko egoerako energia-erabilerak eta ekonomia-erabilerak erakutsi, eta aurreikusitako energia-aurrezkiak eta ekonomia-aurrezkiak esplizitatu beharko dira.

5. laguntza-azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak

Neurri guztietarako dokumentazio tekniko komuna.

- Egin beharreko jarduketa, energia-aurrezkiak dakarten elementuen deskribapena eta ezaugarri teknikoak eta aurrezki horren kuantifikazioa zehazten dituen deskripzio-memoria.
- Kostu hautagarriak, hau da, instalazioan energia-aurrezkiak dakarten elementuen kostuei dagozkien kontzeptuak identifikatzen dituen aurrekontu xehaketa.
- Batasunaren arau aplikagarrietatik haraindi joateko edo Batasunaren araurik ez dagoen ingurumen-babesa areagotzeko beharrezkoak diren inbertsio-kostu gehigarriak. Zehatz-mehatz, honela zehaztuko dira:
 - c) Ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, inbertsioaren guztizko kostuetan inbertsio bereizi gisa identifika daitezkeenean.
 - d) Beste kasu guztietan, ingurumena babesteko inbertsioaren kostuak, baina ingurumena hainbeste errespetatzen ez duen eta laguntzarik gabe modu sinesgarrian egin zitekeen antzeko inbertsio baten arabera zehaztuta.

5.1 ildoak

Deskripzio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu:

- Sistemaren funtzionamenduaren deskribapena, besteak beste ezaugarriak, joan-etorri motak eta langile baimenduak adieraziz.



- Sisteman sartutako bizikleten zerrenda, marka, modeloa eta mota (arrunta edo elektrikoa) zehaztuz.
- Proiektuan sartutako beste material batzuen zerrenda eta deskribapena.
- Urteko erabilera-distantzia zenbatetsia.
- Ordeztu nahi den ibilgailu motordun mota.
- Urteko energia-aurrezki zenbatetsia.

5.2 ildoak

Deskripzio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu:

- Fabrikatzailearen zehaztapen teknikoen kopia; bertan, bateria litio (Li) ioizkoa dela zehaztu beharko da edo, bestela, bateriaren energia-dentsitatea (Wh/kg) edo bateriaren pisua (kg), kapazitatea (Ah), eta tentsioa (V) jaso beharko dira.
- Fabrikatzailearen zehaztapen teknikoen kopia, non trizikloak garraia dezakeen gehieneko karga-pisua (kg) jasotzen den.

5.3 ildoak

Deskripzio-memoriak honako hauek jaso beharko ditu:

- Proiektuaren deskribapena, besteak beste bizikleta arrunten kopurua, bizikleta elektrikoaren kopurua eta ainguraketen kopurua adieraziz.
- Mailegu-sistemaren kudeaketa-motaren deskribapena.
- Mailegu-sistemaren estaldura-eremuan hiri-mugikortasun jasangarriko plan bat egonez gero, haren kopia aurkeztuko da.

Bizikleta-maileguko zerbitzua emateko erakunde adjudikazioduna izanez gero, zerbitzuaren prestazioa arautzen duen kontratuaren kopia aurkeztuko da.



6. laguntza-azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–

- Aurrekontu xehakaturia, ekipamenduaren marka eta modeloa adieraziz.
- Ekipamenduaren fitxa teknikoa.

II.E.B Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa

All.B.1 Egindako jarduketaren justifikazio-dokumentazioa, laguntza-azpiprograma guztietarako aplikagarria

a) Jarduketak ongi egin direla justifikatzen duen txostena, behin betiko proiektua egin duen eskumeneko teknikari tituludunak –edo, halakorik ezean, obra zuzendariak, edo, bidezko bada, egikaritutako instalazioaren azken memoria teknikoa egin duen enpresa instalatzaileak– sinatua, datatua eta emana. Betebehar hau ez da aplikagarria izango 6. laguntza-programaren (ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea –Horeca–) onuradunentzat.

Txosten honetan jarduketak behar bezala eta laguntzaren oinarrietan eta emakidan ezarritako baldintzen arabera egin direla justifikatu behar da eta benetan egikaritutakoa, lortutako emaitzak eta, desbideraketarik izanez gero, haien justifikazioa jaso beharko dira.

b) Bai jarduketak egin zaizkien hasierako instalazioen bai laguntza jaso duten amaierako instalazioen argazki-erreportajea. Ekipamendu edo instalazio nagusiak identifikatu behar dira, baita haien ezaugarrien plakak ere, halakorik edukiz gero.

c) Laguntza-azpiprograma bakoitzerako behar den «ex post» jarduketa ongi egikaritu dela justifikatzen duen dokumentazioa (egikaritutako jarduketa motaren arabera, bidezko bada eta beharrezkoa denean):

- Obra-zuzendariak eta obrako lanen zuzendariak sinatutako obra-bukaerako ziurtagiria.
- Ustiapen-baimena edo zerbitzuan jartzeko akta lortzeko autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari eman zaion diseinu-memoria teknikoa edo proiektuaren kopia (jarduketa motarako dagokionaren arabera) eta/edo Instalazio Elektrikoaren ziurtagiria eta/edo instalazio termikoaren ziurtagiria.

Betebehar hau ez da aplikagarria izango 6. laguntza-programaren (ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea –Horeca–) onuradunentzat.

d) Halakorik egonez gero, egindako jarduketei dagozkien eskabideen edo kontratuen zerrenda sailkatua, onuradunak sinatua, eta haien kopia.

Kontratazio publikoa tartean izanez gero, laguntzaren xede diren jarduketak egiteko laguntzaren onuradunak sinatutako kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia, baita kontratazio prozedura justifikatzen duen dokumentazioa ere: kontratatzailearen profilaren web helbidea, agiriak, lizitazio-iragarkiak eta kontratuen formalizazioa, kontratazio-organoaren akordioak.

Betebehar hau ez da aplikagarria izango 6. laguntza-programaren (ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea –Horeca–) onuradunentzat.

e) Kostu subentzionagarriaren zenbatekoak gainditzen baditu kontratu txikirako aplikatzekoa den kontratazio publikoko araudian ezarritako zenbatekoak, eta, betiere, Dirulaguntzei buruzko Legeko 31.3 artikulua aurreikusitako kasuetako baten aurrean ez bagaude, laguntzaren onuradunak egiaztatu beharko du gutxienez hiru hornitzailei eskaintzak eskatu dizkiela, agindu horretan ezarritakoa betez, eta memoria bat ere aurkeztu beharko du, non hornitzailearen hautaketa arrazoizko moduan justifikatuko den, baldin eta eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatu ez bada.

f) Egindako inbertsio hautagarriari dagozkion eta aurkeztutako aurrekontuarekin eta kontratuekin bat datozen fakturen eta haiei dagozkien banku-ordainagiriaren zerrenda sailkatua (laguntzaren azken hartzailea, ordainketa jaso duen hirugarrena, ordainketa-data eta laguntzaren xede den proiektua identifikatzeko beharrezko datuak identifikatzea ahalbidetzeko), onuradunak sinatua, eta bai fakturen bai banku-ordainagiriaren kopia.



Obra-ziurtagiriei buruzko fakturak ematea eskatu duten proiektu guztietarako, honako hauek aurkeztu beharko dira: 1) emandako faktura-ziurtagiri multzoa, 2) emandako faktura-ziurtagiri bakoitzari buruzko ziurtagiri-laburpenen multzoa, eta 3) emandako ziurtagiri bakoitzaren arabera egikaritutako partiden bilakaerari buruzko xehetasunen multzoa (laburpena eta faktura).

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dauzkala egiaztatzen duen dokumentazioa.

Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18 eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpenak edo dokumentuak aurkezteko betebeharra bete behar ez badute, salbuespen horren funtsa adierazi beharko da espresuki, Erregelamendu honen 24. artikuluan aurreikusitakoa betez. Aitzitik, adierazpen edo dokumentu horiek nahitaez aurkezteko salbuespenik ez badago, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu horren 22. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak (EEE) zuzenean lor dezan Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien akreditazioa, ziurtagiri telematikoen bitartez, eta kasu horretan eskatzaileak ez du dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko. Nolanahi ere, eskatzaileak baimenari espresuki uko egiteko aukera izango du, eta kasu horretan ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

h) Horrelakorik bada, pizgarri-programa honen testuinguruan eskatutako jarduketa edo helburu bererako kobratutako beste dirulaguntza edo laguntzak daudela akreditatzen duen erantzukizunpeko adierazpenaren edo emakida-ebazpenaren kopia, edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren laguntzak izanik ere, estatukoak edo nazioartekoak.

j) Erantzukizunpeko adierazpena, laguntzen onuradunen justifikazioaren aurrekoa, honako hauek bermatuko dituena:

- Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
- Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
- Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.

All.B.2 Egindako jarduketaren justifikazio-dokumentazioa, laguntza-azpiprograma bakoitzerako berezia

1. laguntza-azpiprograma – Industrian eta eraikinetan hidrogenoa kontsumitzeko inbertsioak

- Bat ere ez.

2. laguntza-azpiprograma – Industria-sektoreko eta hirugarren sektoreko ETEetan energia-efizientzia sustatzeko inbertsioak

- Bat ere ez.

3. laguntza-azpiprograma – Energia berriztagarrien instalazioak egikaritzearekin lotutako inbertsioak

- Bat ere ez.



4. laguntza-azpiprograma – Energia-eskaria kudeatzeko sistema integralen ezarketa

Jarduketa subentzionagarriaren justifikazioa jarraian zehazten den motakoa izango da:

- Kontsumoari buruzko datuak denbora errealean edo ia errealean lortzeko balio duten eta energia-eskaria kudeatzeko eta malgutzeko neurriak ezartzea ahalbidetzen duten neurketa, erregulazio eta kontrolerako ekipamenduen deskribapen zehatza.
- Biltegiatzeko ekipamenduen deskribapen zehatza, bai biltegiatze arruntaren bidezkoena (litio ioizko bateriak), bai biltegiatze hidraulikoaren bidezkoena, bai beste biltegiatze-sistema berritzaile batzuen. Hurrengo belaunaldiko bateriak eta ibilgailu-baterien aprobetxamendu berriak ere onartzen dira (baterien bigarren bizitza).
- Batetik energia-kontsumoari eta identifikatutako beste aldagai batzuei buruzko datuak eskuratzeko eta tratatzeko eta bestetik ekipamendu kudeagarri guztiei eragiteko balio duen softwarearen garapenaren edo erosketaren deskribapen zehatza.
- Ezarri beharreko jarduketa bakoitzak eskaria kudeatzen nola lagunduko duen azaltzen duen analisi xehatua, zehatz-mehatz, energia-kontsumoa batez ere puntako orduetan murrizteari, kontsumoa lekualdatzeari eta, halakorik egonez gero, energia-kostuen eta ekonomia-kostuen murrizketari dagokienez. Memoria teknikoan orobat justifikatu beharko da nola lagunduko duen jarduketa berezi bakoitzak EEKSI orokorraren barruan eskaria kudeatzen.

5. laguntza-azpiprograma – Garraio eta mugikortasun efizienterako jarduketak

5.1 ildoak

- Instalazioa legeztatzekeko Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailari dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztutako dokumentuaren kopia.

5.2.1 ildoak

- Egindako jarduketaren deskripzio-memoria, eskaeran aurkeztutakoarekin erkatuta alderik egonez gero.

5.2.3 ildoak


- Egindako jarduketaren deskripzio-memoria, inbertsioaren justifikazio-egunean sistemak dauzkan ezaugarrien berri emanez, hala nola bizikleta erabilgarrien kopurua, ainguraketa kopurua, etab.

6. laguntza-azpiprograma – Ostalaritza-sektorean energia-efizientzia altuko ekipamenduak berritzea: hotelak, jatetxeak eta kafetegiak –Horeca–

- Faktura xehaketa, ekipamenduen marka eta modeloa adieraziz.
- Fakturen ordainagiria.
- CE marka (ez nahasi China Export markarekin).



- Energia-etiketa berriaren kopia (EPREL).



- Ordezgutako ekipamendua hondakin-kudeatzaile baimenduari eman zaiolako ziurtagiria.